



NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ETXETIK PLAZARA

BABARRUN burrumba

SARIA:
Eguberrietako
otarre
bete eder
bat

2014ko AZARO-ABENDUA 140. ALEA

IRAKURLAN

“Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian”

Bernardo Atxaga

Aitatxi bat gazte zela Ipar Ameriketara joan eta urte anitzen ondoren bere bilobari kontatutako zati ttikitto bat duzue hauxe.

“Ene herrian bizi izan nintzen artean, zer eduki nuen ba? Ezer ez, hitz gutxitan esateko. Patata egosia eta baba jateko. Janzteko zarpa batzuk, hemengo mendicant utzienak ere eramango ez lituzkeenak. Hanketan, berriz, apreta zaharrak. Dirua ezta ikusi ere. Gauza pobrea, hangoa,. Orain sikiera badut etxe bat bere baratze eta guzti.....

Negua oso gogorra izaten zen paraje hartan. Leku guztiak lokatzetan, leku guztiak hotzez, eta igandetan ere apenas ezer dibertitzeko, zerengatik soinujoleek ez baitzuten urtearen sasoi horretan jotzen; eskua jelatu egiten zitzaiera zioten, eta akaso egia izango zen. Gauzak horrela, zurruta besterik ez zitzaigun gelditzen, eta hurrengo egunean mendira.

Mendia oso tristea da neguan, han bezala hemen, leku guztietan. Begiratzen duzu alde batera, eta pagadi soildu bat, eskeletoz betea bezala; begiratzen duzu bestaldera eta bide hutsak, ez jende ez animalia eta ez ezer bidean, eta isiltasun latza. Neguan politena, gure herri hartan behintzat, erreka izaten zen. Urak lurrana ateratzen zuen, irakiten balego bezala, eta horrek bero pixka bat ematen zigun.

Askotan atera ere ez ginen lanera ateratzen, eta hantxe egoten ginen etxean, gaztainak jaten eta suari begira. Ameriketara joatea erabaki nuen arte, suaren aurrean egotea aspergarria egiten zitzaidan, eta desiratzen egoten nintzen udaberria etor zedin. Baina behin erabakia hartu ondorenean, gustatu egin zitzaidan suaren aurrean egoteko asunto hura, ateratzea baino gehiago gustatzen zitzaidan ia. Suak lagundu egiten dizu, zerengatik horrelakoxea da sua, jartzen zatzaizkio begira eta orduak konturatu gabe joaten zaizkizu; hainbat eta errazago zenbat eta pentsatzeko gauza gehiago eduki. Eta niri horixe gertatu zitzaidan, Ameriketara joateak egunduko gaiak ematen zizkidala pentsatzeko”

**Bi letter jaso nituen
oso denbora gutxian**

BERNARDO ATXAGA



AUSKAZO
BUMERAN



ZURE TXANDA



Irakurritako Atxagaren ipuinean zenbait egiturek atentzioa eman digute eta ziur gaude zuek ere erreparatu eta agian harritu egin zaituztenak direla; horregatik ekarri ditugu atal honetara.

“Hemengo mendicat utzienak ere eramango ez lituzkeenak”

Kasu honetan hitza da, **mendicat**, hain zuzen ere; eta zer erran nahi du hitz horrek? Bada guk erraten dugun **eskale**, **txiro**, izanen litzateke.

“Igandetan ere apenas ezer dibertitzeko”

Esaldi honetan ERE emendio edo gehitze zentzua ematen dion lokailua ageri zaigu.

“Zerengatik soinu-joleek ez baitzuten urtearen sasoi horretan jotzen”

Honetan ARRAZOIA ematen ari zaigu, guretzat arrotza den modua, ordea. Hala ere, gure inguru honetan ZERGATK edo ZE eta horrelakoak ere erabiltzen dira. Bertze modu bat ere badugu eta hauxe da: **izan ere**,.....lokailuarekin hastea.

“Zurruta besterik ez zitzaigun gelditu”

Perpaus hau bertze modu hauetan ere erran genezake: “zurruta **baino ez / baizik ez** zitzaigun geratzen”

“Irakiten balego bezala”

edo izanen balitz bezala, edo bazen bezala adierazi nahi dugun denboraren arabera.

“Udaberria etor zedin”

Esaldi honetan subjuntiboa ageri zaigu, nominalizatu ere egiten duguna; hau da, “udaberria **etortzeko**”

“Hainbat eta errazago zenbat eta gauza gehiago eduki”

edo “Zenbat eta gauza gehiago eduki, orduan eta errazago” erranen genuke.





ZURE TXANDA

ESALDIAK BERRIDATZI

- 1- Hemengo mendicat utzienak ere eramango ez lituzkeenak.
.....modukoak.
- 2- Igandetan ere apenas ezer dibertitzeko.
.....gutti.....
- 3- Zerengatik horrelakoxea da sua, jartzen zatzaizkio begira.....
lzan ere,.....bait.....
- 4- Zurruta besterik ez zitzaigun gelditzen.
.....baizik.....
- 5- Urak lurruna ateratzen zuen, irakiten balego bezala.
.....ba.....
- 6- Desiratzen egoten nintzen, udaberria etor zedin.
.....hura.....ko.

SINONIMOAK

Ezker eta eskuineko hitzak parekatuko dituzu?



Lokatzetan
Sasoi
Jelatu
Tristea
Latz
Orduak
Egundoko
Apreta
Akaso
Sikiera

Bederen
Orenak
Gogorra
Garai
Hormatu
Espartina
Hitsa
Agian
Sekulako
Lohietan



Urrian bildutako babarrunak ederki kontserbatuta ditugu, neguan tarteka otordu ederrak prestatzeko. Gaur egun luxuzko elikagaitzat hartzen dugu, hortaz, gurean izan duen garrantzia eta eragina azaltzeko, zertzelada batzuk bildu ditugu. Testuari 8 hitz kendu dizkiogu eta behean paratu ditugu hiru aukera emanda, ea zuzenak asmatzen dituzun.

ERNE. SARIRAKO!

Babarruna entzun eta ____1____ honako galdera hau aditzen dugu: babarruna? Gurean banabarra, ilarra, ilar habeetakoa, indaba, baba... esaten da. Locozquietaren arabera, banabarra Narbarteko hitza da: baba + nabarra (kolore ezberdinetako baba).

Babarruna tradizio handiko elikagaia izan da Euskal Herrian, duela bortzehun urte baino lehenagotik gure baserrietan ekoizten baitzen. Ameriketatik XVI. mendean ekarri zen, kolonizazioaren ondoren. Baina bide luzea jorratu behar izan zuen nekazariak onartu eta horren kontsumoa zabaldu arte; babak eta gaztainak alde batera ____2____, euskal eltzekoaren oinarritzko ____3____ bihurtu arte. Hala ere, basa-mutilek eta ikazkinek baba jaten jarraitu zuten, elikagai hobea zelakoan. Hori dela eta, XVIII. mendearen amaiera arte eta XIX. mendearen hasiera arte ez zuen indar handirik hartu. Nekazaritzaren pizkundearekin batera babarrunak onespén zabala lortu zuen. Adibidez, ____4____ Gipuzkoan ekoizpena lau milioi kilokoa izan zen, gaur egun haren hamarren bat besterik ez denaren aldean. Babarrunak gure baserrietan beste uztza bat gehiago izatea erdietsi zuen, artoarekin batera ekoizten baita, horrela, garai hartako gosea arintzen lagundu zuen.

XX. mendearen erditik aitzinera, ordea, beherakada nabarmena ____5____ hasi zen arrazoi ezberdinek zirela eta: gure dietan ohitura eta produktu berriak sartu zirelako, maila ekonomiko hobea lortu zelako, industriak izandako gorakadaren ondorioz lantegiak eraikitzeak lur anitz desagertu zirelako...

Dena dela, azken hamarkada hauetan, bere garrantzia berreskuratu egin du, bai ekoizpenean, bai kontsumoan. Babarruna proteinetan aberatsenetakoa da landare jatorriko elikagaien artean. Karbono hidratoak ugari ditu, baita zuntza ere, eta hori ____6____, mineralak eta bitaminak ere ____7____, B mailakoak bereziki. Zuntz anitz duenez, azalari esker ____8____ mugikortasuna errazten dute eta idorreria eragozten du, baina, bestalde, haizeak sortzen ditu. Digestioa hobetzeko, irakinaldia eten ____9____, zorrotada bat ____10____ botata. Horretarako, bertze aukera interesgarriak ere badira, adibidez, konbu algaren hosto bat edo digestioa errazten duten espeziak botatzea (kuminoa, ezkaia...)

1.- a) beala
b) bereala
c) berehala

2.- a) utzirik
b) utzik
c) uzten

3.- a) egoskaria
b) egoskari
c) hegozkaria

4.- a) 1914ean
b) 1914in
c) 1914an

5.- a) nozitzea
b) nozitzeko
c) nozitzen

6.- a) ezik
b) ez ezik
c) izan ezik

7.- a) baditu
b) dauzka
c) ditu


8.- a) hesteei
b) esteen
c) hesteen

9.- a) daitezke
b) dezake
c) daiteke

10.- a) hur
b) ur
c) ura



SUKALDEA DANTZAN



Gure baserrietan eta gure baratzeetan babarrun ederrak ekoizten dira eta bor-borka ederki prestatzen dituzte gure etxeko sukaldariek. Babarruna nola prestatu eta aholku batzuk emanen ditugu kategoriako eltzekada prestatzeko. Dena den, sukaldari bikaina zarela baieztatzeko testuan zortzi harri kozkor edo akats nabarmen sartu ditugu, ea zure sardexka finaz harrapatzen dituzun. (Egiazko datuak erantzun orrian daude)

OSAGAIAK (4 lagunentzat)

Tolosako babarruna 1/5 kg.

Tipula txiki bat

Oliba-olio 500 koilarakada

Gatza eta 1,5 l. ur



Era tradizionalean:

Babarrunak eltze batean jarri ur hotzarekin, oliba-olioarekin eta xehe-xehe txikitutako tipularekin. Eltzea su bizian jarri, irakiten hasi arte, gero, sua moteldu eta babarrunak gutxi gorabehera ordu pare batez makal-makal irakiten eduki. Egiten ari diren heinean, eta beharrezkoa baldin bada, ura botaz joan. Babarrunak ongi eginda daudenean, azukre beltza bota eta su motel-motelean eduki minutu batzuetan. Jateko atera baino lehen, esnegaina bota salda loditzeko.

Presiozko eltzean:

Presiozko eltzea erabiltzen bada nabarmen jaitsiko da egosteko denbora, 30 ordutan jateko prest izanen baitira. Babarrunak eltze batean jarri ur oxigenatuarekin, oliba-olioarekin eta xehe-xehe txikitutako tipularekin. Egoste-denbora eta behar den ur-kopurua eltzearen ezaugarriaren arabera izanen da. Babarrunak ongi eginda daudenean, tapakia kendu, gatza bota eta su motel-motelean eduki minutu batzuetan. Jateko atera baino lehen sutatik kanpora utzi salda lodi dadin.

Aurkezpena eta lagungarriak

Aurkezteko denboran bakoitzak duen gustua eta irudimenaren arabera egingen dugu. Tradizioaren arabera, babarrunak eltzean bertan mahaiaratzten dira, eta batez ere, ostruka-haragiarekin (odolkia, txorizoa, saiheskia, urdaia...) aza egosiarekin eta piperminekin. Gauza bakoitza bere aldetik aurkeztea hobe, norberak nahieran har dezan.

Aholkuak:

Salda lodia gustatzen bazaizu babarrunak bezperan prestatu eta hurrengo egunean ongi gizendu.

Egosi baino lehen beratzen baldin baditugu, egoste-denbora laburtzea lortuko dugu.

Zomorrorik ez izateko babarrunak ehunezko zaku batean sartu baratzuri buru batzuekin eta eguzkiaren argia jasoz. Beste aukera bat bada, babarrunak izoztea eta behar dugun adina ateratzea prestatzeko tenorean.

Harri kozkorak:

1. _____
2. _____
3. _____
4. _____

5. _____
6. _____
7. _____
8. _____



ERANTZUNAK

ZURE TXANDA (4. or.):

Esaldiak berridatzi: 1- ...uzteko modukoak; 2- ...deus/ezer gutti...; 3- Izan ere, horrelakoxea baita sua; 4- Zurruta baizik ez...; 5- ...irakiten balitz bezala; 6- ...hura udaberria etortzeko.
Sinonimoak: lokatzetan - lohietan; sasoi - garai; jelatu - hormatu; tristeia - hitsa; latza - gogorra; orduak - orenak; egundoko - sekulako; apreta - espartina; akaso - agian; sikiera - bederen

SUKALDEA DANTZAN (6. or.):

1.- Oliba-olio 500 koilarakada / **5 koilarakada**; 2.- azukre beltza bota / **gatza bota**; 3.- esnegaina bota / **sutatik kanpora utzi**; 4.- 30 ordutan / **30 minututan**; 5.- ur oxigenatuarekin / **ur hotzarekin**; 6.- ostruka-haragia / **txerrikia**; 7.- ongi gizendu / **jan**; 8.- eguzkiaren argia jasoz / **eguzkiaren argia saihestuz**

139. aleko sariketa erantzunak – Bota bertsoal Fabrika berria (6. or.):

1.- baimena; 2.- garena; 3.- geiena; 4.- dena; 5.- azaldu; 6.- saldu; 7.- bildu; 8.- galdu; 9.- berekiñ; 10.- jakiñ; 11.- elkarrekiñ; 12.- egiñ; 13.- ostatu; 14.- jostatu; 15.- gustatu; 16.- kantatu; 17.- adirazi; 18.- grazi; 19.- irabazi; 20.- guazi

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **5. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabaz-learen izena agertuko dira.

Saria:
Eguberrietako otarre
bete eder bat


139. aleko irabazlea:
Oihana Mindegia Goñi
Aurtizkoa

ETXETIK PLAZARA liburua SALGAI

IKA euskaltegietan eta honako liburu-denda eta saltokietan:

- Beran; Agara eta Igone - Lesakan; Xagu - Arantzan; Ilargi okindegia;
- Igantzin; Bi Bide denda - Donezteben; Ostiz, Blas eta IKA euskaltegia
- Elizondon; Axular eta Nafarpress - Leitzan; Maimur, Astiz eta IKA euskaltegia.

6 eurotan, jantzi zure euskara eta lagundu gure lana!



OHARRA: erantzunak abenduaren 16a baino lehen bidal itzazu.



SARIRAKO ARIKETA

BITXILOREAK (5. or.):

Babarrunak

- | | |
|-----------|------------|
| 1 - _____ | 6 - _____ |
| 2 - _____ | 7 - _____ |
| 3 - _____ | 8 - _____ |
| 4 - _____ | 9 - _____ |
| 5 - _____ | 10 - _____ |



EUSKARA berri on!!

ESKER ONEZ beteriko zaku bana;

Iturengo Altxunea eta Urdazubiko
Nikolaurenea erretegiei, Lesakako Linddurrenborda
sagardotegiari eta Beko mintegiari, Martikori,
eta Bortziriak, Malerreka zein Baztango Euskara
Mankomunitateei...

...Kamioikada bat **IKATZ** euskaltegiok
eta euskalgintza gutxietsi eta laguntza
xentimorik gabe utzi dituen **Nafarroako**
Gobernuari.

... eta bitamina zaku bana
EUSKARA erabiltzeko, hobetzeko, ikasteko,
babesteko eta **EUSKARAZ** osasuntsu
bizitzeko euskaltzale guztiei.



Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak
eta maketazioa:

Joseba Larratxe

Laguntzaileak:

**Bortziriak eta Malerrekako
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK
eta Baztango Udala**



ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefona:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortzirietako IKA Euskaltegia. Arretxea 22 31770 Lesaka

Malerrekako IKA Euskaltegia. Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.

